



IKAZTEGIETAKO UDALA  
GIPUZKOA

## 2017KO APIRILAREN 5EKO EZ OHIKO UDALBATZA

**NOIZ:** 2017ko apirilaren 5ean, arratsaldeko 19:30etan

**NON:** Ikaztegietakoko Udaletxeko Areto Nagusian

**BERTARATUAK:** Alkatea: Bakarne Otegui Jauregui (EH BILDU)

### Zinegotziak:

Miren Josune Mendizabal Macazaga (EH BILDU)

Igor Urreta Garayalde (EH BILDU)

Idazkaria: Jose Mari Saiz Pagoaga.

### **BERTARATU EZ DIRENAK:**

Xabat Ibareguren Lazkano (EH BILDU)

Patxi Ulanga Mujika (EAJ-PNV)

Maria Belen Plaza Malaxetxebarria (EAJ-PNV)

Imanol Ormazabal Arin (EAJ-PNV)

### **AZTERGAIK:**

1.- Ikaztegietakoko 01 poligonoko 67 lursailean kokatzen diren 14 baratza ekologiko publikoen zozketa.



- **ESAN EGINAK ETA ERABAKIAK:**

Osoko Bilkura legez osatzeko behar adinako kopuruak parte hartzen duela egiaztatu ondoren, Alkateak bilkura irekitzat ematen du.

Bestalde Udalbatzak aho batez berretsi egiten du gai ordena eta gaia eztabaidatzea eta bozkatzea erabakitzen du.

**1.- IKAZTEGIETAKO 01 POLIGONOKO 67 LURSAILEAN KOKATZEN DIREN 14 BARATZA EKOLOGIKO PUBLIKOEN ZOZKETA.**

Alkateak hitza hartzen du eta adierazten du zozketatuko diren 14 baratzetatik 8 herritarrek baratza bat edukitzeko eskaera egin dutela Ikaztegietakoko Udalak eman duen epearen barruan (2017ko martxoak 16 eta 2017ko martxoak 30 bitartean). Ondoren zozketatuko diren baratzak nola zenbakitu eta zozketa nola egingo den adierazten du, udal bilkurara etorri diren 4 herritar interesatuen artean. Lehenengo baratza ez da zozketatzen Ikaztegietakoko Herri Eskolarentzat izango delako.

Kaxa batean eskaera egin duten 8 herritarren izenak sartzen dira eta 2. baratzetik 9. baratza bitartekoak zozketatzen dira. Lehendabizi 2. baratza, gero 3. baratza eta horrela 9. baratza zozketatu arte. Udal bilkurara etorri diren 4 herritar interesatuek paperak ateratzen dituzte.

Zozketaren emaitza ondorengoa da:

2. baratza: JUAN ANTONIO IRAETA ARSUAGA
3. baratza: JOSE ANTONIO ARRAIZA AYESTARAN
4. baratza: LAURA FERNANDEZ HERNANDEZ
5. baratza: IÑIGO MUXIKA LIZASO



IKAZTEGIETAKO UDALA  
GIPUZKOA

## 2017KO APIRILAREN 5EKO EZ OHIKO UDALBATZA

6. baratza: IÑAKI LARREA TAPIA
7. baratza: OTHMANE DEDAH BADI LAOULAD
8. baratza: ION IPENTZA GOITIA
9. baratza: JOXE MARI URIAGOIKOETXEA

Alkateak bukatzeko adierazten du libre geratzen diren baratzak herritarrek egiten duten eskaeren arabera emango direla hurrenez hurren Alkatetza Erabakiz beti ere udal bilkurari hartutako erabakien berri emanez.

Horrenbestez, arratsaldeko 19:45 direnean, Alkateak bilkura amaitutzat eman du. Eztabaidatu eta erabakitakoa jasota gera dadin, akta hau egin dut alkatearen oniritziarekin.

Ikaztegietan 2017ko apirilaren 5ean

O.I.  
ALKATEA,



Idazkaria,

